

Galeseko Eisteddfod jaiak

(The Eisteddfod festivities in Wales)

Kortazar, Jon*

Euskal Herriko Unibertsitatea

Filologia eta Geografia eta Historia Fakultatea

Tomás y Valiente, 5

01006 Vitoria-Gasteiz

* Euskaltzain urgazlea

Eusko Ikaskuntza

Janak bi gertakari kulturalen, bi tradizio asmatuen arteko konparazioa egitea du helburu, batetik besterako genetismoak proposatu gabe: eisteddfodau galesak eta Abbadiek abiarazi zituen Lore Jokoak. 1815etik aurrera, Londresko elkarte galesak sorturiko eisteddfodau berri horiek tradizioari eta berreraikitako iragan bati loturik zegoen mundu mitikoa sortzeko balio izan zuten, "Kantuaren Herrialdea" mitoaren sorrerarekin batera.

Giltz-Hitzak: Erromantizismoa. Tradizio asmatuak. Lore Jokoak eta Eisteddfodau galesak.

El trabajo pretende una comparación entre dos hechos culturales, sin proponer un genetismo de uno a otro, entre dos tradiciones inventadas: los eisteddfodau galeses y los Lore Jokoak puestas en marcha por Abadie. La creación de nuevos eisteddfodau a partir de 1815 llevada a cabo por sociedades galesas de Londres sirve como engarce para la creación de un mundo mítico, ligado a la tradición y un pasado reconstruido, a la vez que crea el mito del "País de la canción".

Palabras Clave: Romanticismo. Tradiciones inventadas. Lore Jokoak y los eisteddfodau galeses.

Dans ce travail, on fait la comparaison entre deux faits culturels, sans proposer de génétisme de l'un ou de l'autre, entre deux traditions inventées: les eisteddfodau gallois et les Lore Jokoak mis en marche par d'Abadie. La création de nouveaux eisteddfodau à partir de 1815, effectuée par des sociétés galloises de Londres, sert de liaison pour la création d'un monde mythique, lié à la tradition d'un passé reconstruit, en même temps qu'il crée le mythe du "Pays de la chanson".

Mots Clés: Romantisme. Traditions inventées. Lore Jokoak et les eisteddfodau gallois.

Literatur generoak maite ez dituen garai honetan, generoen aldeko aipamena egin nahi nuke. Nire lantxo honek badu bere muga ondo marraturik. Ez da ikerketa generoan kokatzen. Ez da norberaren ikerketaren ondoren sorturiko hitz-solasa; zerbait bereziagoa da. Beste norbaitek azterturikoaz arituko naiz, eta, beraz, gehiago sartu genezake kazetaritza generoan, ikerketa generoan baino. Berri ematera nator, beraz. Beste herrialde batzuetan egin den ikerketaren berri ematera, hain zuzen.

Eta bide hori aukeratu badut paralelotasunaren mesedetan izan da. Hain zuzen ere, Antoin Abadiren lana aztertzen dugun honetan komenigarria da testuingurua. Eta ez solik hurbila –Catalunyako adibidea bat-batean etortzen zaigu burura– baizik eta adibide berriak aurkitu beharrean gaudela iruditzen zait.

Galeseko adibidea oso zuzena dela ikusko genuke hartaz zenbait berri jakin ondoren, batez ere, tradizioaren asmamenaren kasu berezi eta hurbila agertzen digulako.

Tradizioaren asmamena kontzeptua Enric Hobsbawm-en inguruan sortu da, eta oso erabilgarria da Antoin Abadiren kasua aipatuz gero, hain zuzen ere Lore Jokoak ez baitira hori besterik: tradizio asmatuak.

Tradizio asmatuaren kontzeptua honela adierazi dezakegu:

“Tradizio asmatutzat arau onartuen bidez gauzatzen diren eguneroko praktikak har ditzakegu, eta bizitza balioak eta jokabiderako arauak zabaldu nahi dituzten joera sinbolikoa duen ekintzak, neurri handi batean guzti horrek iraganarekin lotura azaldu nahi du” (Hobsbawm, 1988, 13).

Zentzu zabala du kontzeptuak, baina ez horregatik zehazgabea:

“Tradizio asmatu kontzeptua era zabalez erabili ohi da, baina ez zehazgabe. Bere barruan era biko joerak sartzen dira, benetan asmatuak, sortuak eta formalki eratuak diren ‘tradizioak’, eta aldi labur baten sortu eta laster zabaldu direnak, nahiz eta adierazteko eta ezagutzeko zailagoak gertatu. (Hobsbawm, 1988, 13).

Tradizio asmatu eta gizarte tradizioaletan agertzen diren ohituren arteko desberdintasunak garbiak dira: ohitura, bizitza den bezala eta den heinean, aldakorra da, eta tradizio asmatua aldaezina, edo behintzat, arauen arabera moldatua; bigarren maila batean “tradizio asmatua” sinbolikoa da, eta eguneroko joerak, ohiturak, nahiz eta batzutan horrela gertatu, ez du izaten joera sinbolikorik; ohiturak, egunerokotasunak, balio teknikoak ohi du, eta ez sinbolikoa lehen maila batean.

Tradizio asmatuek ikaragarriko garrantzia dute gizarte baten barruan eta hiru helburu betetzen dituzte: a) sare soziala sortzen dituztenak eta gizarteratzen prozesua bultzatzen dutenak; b) satatus, elkarkidetzeta eta boterearen instituzioak sortu edo indartzen dituztenak; eta c) ideien sozializazioa, sinesmen zabalkundea, jarrerak eta bizimoduak zabaltzen dituztenak.

Antoin Abadiren Lore Jokoek neurri batean hirugarren helburua lortzeko sortuak dira, nahiz eta ez den lehena ere alde batera utzi behar.

Egia esateko, Hobsbawmen ustetan, tradizio asmatuak oso garrantzizkoak dira nazio kontzeptua eta berarekin loturik diren beste kontzeptu batzuk (nazionalismoa, nazioa eta estatua, nazio sinboloak, historia) aztertzeko orduan. (Hobsbawm, 1988, 14-23). Gure lana non kokatzen den aztertu ondoren, bere oinarri metodologikoak zeintzuk diren ikusi ondoren, Antoin Abadiren Lore Jokoen sorrera non egon litekeen ikusi nahi genuke Galeseko kasuaz hitz egiteko.

Hizkuntza minorizatu eta galtzeko zorian zegoen baten jabe izaki, Galesek eta Euskal Herriak bazuten orokorrean papralelotasunik. Voltairek adierazi bazuen Euskal Herria Pirineoaren bi aldeetan kanta eta dantza ari zen herria zela, Humboldt-ek euskararen heriotza adierazi zuen. Antzeko zerbait gertatzen zen Galesen. XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran prozesu erromantikoak gertatzen hasten dira herrialde bietan.

“Alde batetik, antzinako bizitzaren heriotza edo jeiskera, eta, bestetik, ekintza galesekiko interes berezi baten sorrera eta jarraipena, eta haiek gordetzeko edo aurrera ateratzeko interes berezia” (Morgan, 1988, 51).

Garbi dagoenez joera paralelo hori ez da zuzena Gales eta Euskal herriaren artean, baina ez da berriz ere erromantizismoak bultzaturik beste herrialde askotan gertatzen den joera da. Hemen, solasaldi huetan ere, berebiziko garrantzia eman zaio erromantizismoaren eraginari, bai Euskal Herrian eta baita ere Abadiren lanean. Agian, honen lana ez litzateke ulertuko mogimendu erromantikorik gabe.

Gure artean gertatu den bezala, Galesen ere “Mitologizaizo erromantikoak urrun joan zen Galesen eta etorriko zen historian ikaragarritzko ondarea utziko zuen” (Morgan, 1988, 51).

Egoera paralelo horrek ez du adierazten baina, lotura zuzenik Gales eta Abadiren bidez Euskal Herriaren artean, giro orokorrago baten zordun ziren herrialde biak. Giro berdintsua bizi dute, Europako beste hainbat herrialdek bizi duten bezala.

Orain arteko paralelotasunak ez du loturarik ikusten uzten herrialde bien artean.

Galesek bizi duen erromantizismo joerak hainbat alde ditu, eta zenbait alde ere joera paralelorik badute Euskal Herrian.

Galesi buruzko topikoak: Gales Herriari buruz ezagutzen diren zenbait topikok badute zerikusirik Euskal Herriaz esan direnekin. Adibidez, Gales Abestiaren herria deitu izan zen historian zehar. XIX. mendean Galesen nagusi da abestien aberastasuna: harpariak, kantariak, abesti taldeak, koruak, eta musika tradizionala sortzeko eta mantentzeko talde desberdinek parte hartzen zuten Galesen abestiaren tradizioa mantentzeko asmoz. Harparen berpizte izaugarria gertatu zen XIX. mendean Edward Jones-en (1752-1824) lanei esker. Harpa musika-tresna nazionala bihurtu zen, ziurrenik, beste musika-tresna nazionalak, pgborna edo crwth (crowd) berriki desagertuak zirelako. XIX. mendean ere abesti inglesen birmoldaketa gertatzen da, eta prozesu honetan abestien mitologizazioa gertatzen da. Beste era batez esateko, ezagunak ziren abesti inglesak itzuli egiten dira lehenik, eta gero Galeseko mitoen transkripzioak balira irakurri ziren. John Hughes, Ceiriog deiturikoak balada historiko zenbait idatzi zituen, ingelsek sorturiko historiari erantzuteko asmoz.

Horrek guztiak eragin ideologikoa izan zuen, Galestarrei beren buruan sinesteko beta eman baitzieten urteetan geraturiko, asmatuak eta sorturiko abestiek.

Galeseko jantzi propioa. Tradizioen munduan askotan gertatzen den bezala, artisautzak gorde egin ohi ditu beste tokietan desagerturik diren modak eta janzkerak, estiloak eta moldeak. Galeseko jantziekin beste horrenbeste gertatu zen. XVIII. mendean Galeseko emakumeak Ingalaterran XVII. mendean modan ziren jantziak erabiltzen zituzten. Guzti hori arrazoik ekonomikoengatik egiten zuten: txiroak ziren eta eskura zutena erabiltzen zuten jantziak egiteko. Emakumeen janzkeran elementu bi ziren nagusiak: txapel beltza eta kapa luze, urdin edo gorria.

XIX. medean, ordea, Augusta Waddington (1802-1896) emakume nobleari esker, janzkera herrikoi eta txiroak alde sinbolikoa irabaziko du. Waddingtonek entsegu berezia idatzi zuen

1834. urtean Galeseko janzkera deskribatuz. Entseguaren helburua galesera hitz egiteak eta janzkera galesa janzteak ekar diezaikeen abantaila azpimarratzea zen. Waddingtone-ek Galeseko ehundegia bultzatu nahi zuen Galeseko janzkera eredu gisa jarri zuenean. 1834. urtean ez zuen jantzi nazioanalaren ideiarik, baina pentsatzen zuen Galesek bazuela janzkera pintoresko eta berezia. Eta hala asmatu zuen emakume galestarren janzkera: kapa gorria, gonatxo eta jaka galanten gainetik, eta kapela altu luzea. "Gales Dama" izenarekin diseinua bat-batean zabaldu zen: gailera eta irin paketeetan, postaletan, Galeseko karikatura gisa egunkarietan...

Horrela Galeseko ideiak moldapen berezia hartu zuen, janzkera beste zenbait estrategiaren partaide besterik ez zelarik.

Gure artean gertatu denarekin konparatzeko orduan, Galeseko hizkuntzarekin gertaturikoak badu zerikusirik. XVIII. mendean galeserak berpiztea ezagutu zuen, gero eta gehiago argitaratzen zen galeseraz, gero eta gai ugariagoak agertzen ziren hizkuntza horretan, eta pixkanaka-pixkanaka leuntzen hasi zen ingleseraren eta galeseraren arteko diglosia. XVIII. mendearen bukaeran ikaragarri ugaltu ziren gramatikak eta hiztegiak.

Mendearen hasieran galesera hizkuntza narrats eta zaharkituztat bazuten, mendearen bukaera aldera prestigioa irabazita zuen hizkuntzak.

Mende bukaeran hizkuntza zaharra, Europako eta munduko hizkuntzarik zaharrentzat dute galestarrek.

Hiztegien zerrenda ugaltu egiten da XVIII. mendearen bukaeran. Eta guztien artean William Owen (Pughe deiturikoak) 1795. urtetik 1803. urtera ateratzen duena benetan ikaragarria da, bai zabalpenez, bai bere hipotesiengatik. Owen-en lanari esker, galesera hizkuntza garbi eta gardena bihurtzen da. Bere baitan hizkuntza guztien sekretuak gordetzen dira. Garbia da, gure dotrina egileek esan zuten moduan, bere baitan ez dagoelako hitz zakarrik, ezin delako biraorik egin galeseraz. Bide honetatik laster defendatzen da galesera dela hizkuntza guztien sorrera.

Hizkuntzaren birmoldaketa honetan William Owen-ek ikaragarritzko garrantzia izago du. Jarraitzen dugun Pry Morgan-ek adierazi duenez:

"Ziur zen galesera aztertuz gizadiaren hizkuntzaren iturrira helduko zela. Gehiago oraindik, hitz galesak bananduz eta alde txikietan hartuz hizkuntza era logiko batez sortzeko modua zegoela uste zuen, eta berez erabilpena zabaldu eta aplikazioa behin eta berriro egiteko modua zela defendatu zuen. Pughe-k galeserarekin, berezitasun sintaktiko eta irregularitasunez beteriko hizkuntza korapilatsuarekin, lan egiten du joera arrazional batez. Hizkuntza zatikatu egiten du eta berreraiki osatasun ordenatuan bere hiztegian, bere gramatiketan eta bere literatur lanetan" (Morgan, 1988, 73).

Badu horrek zerikurik Larramendik gure artena egin duen lanarekin.

Ikusten dugunez, badira paralelotasun orokorrak Galeseko pentsakizun linguistiko, etnografiko eta protonazionalen eta gure artean gertatu direnengatik.

Guzti horrek badu, eta ez du zerikusirik Abadik bultzatu dituen Lore Jokoekin. Zeren pentsakizun horren erdian, Galeseko berezitasunaren erdian, badira lore joko batzuk, eta kasu honetan paralelotasunak zuzenagoak dira.

Galesen bazen tradizio berezia "Eisteddfod" izenarekin ezagutua dena. Ez zen berez asmaturiko tradizioa. Bardoen bilkurak ziren berez, eta lehenaren berria 1176. urtean geratu-koarena da. Morganez adierazten duenez:

“Hitzak “bilkura” adierazten du eta urte bete lehenagoz iragarki eta sariak ematen diren lehiaketa poetiko eta musikalak dira” (Morgan, 1988, 61).

Bardoen bilkura horiek bide luzea jarraitzen dute. Erdi Aroan bardoen azterketa gisa eratzten dira, onak saritzeko eta txarrei lizentzia kentzeko. XVI. mendean bizirik ziren oraindik, baina mendearen bukaerako galtzeko arriskutan ziren bardoak, galtzera zihoan bizitzarekin loturik agertzen zirelako, batez ere.

Beste molde batzuk hartu zituen XVIII. mendearen hasieran. John Roderick-ek berpiztu zituen eta eisteddfod berriak egin zituen, bere almanaketan agertu eta argitaratuz. Baina bardoak desgarturik ziren jadanik, eta poeta berriak zaleak besterik ez ziren.

Orokorki begiraturaz, Galesko eisteddfod jaiak lau aro nagusi ezagutu zituzten:

1) Jatorrizkoak. XI. eta XVI. mende bitartekoak.

2) XVIII. mendearen hasieran John Roderick-ek berpizturiko “almanaketako eisteddfod”-ak, idatziz zabaldu zirenak.

3) 1770. urtetik aurrekoak, Iparreko Galesetarrak, Gwyneddigion, taldearen izean ageriturikoak. Londonen bizi ziren galestarrak eraturiko jaiak dira hauek.

4) XIX. mendeko “eisteddfod”ak Galesko taldeen izenean sortu eta martxan jarrikoak.

5) eta Edward Williamsek, ezizen druidikoz lolo Morganwgek, (1747-1826), asmatuko dituen ospakizun druidikoak.

Euskal lore jokoekin erkatuz gero, batez ere, hirugarren eta laugarren aldekoak dira garrantzia dutenak, hain zuen ere XVIII. mendean eta XIX.enean eraturikoak.

–Kanpotik etorritako norbaitek eraturiko jaiak dira, galeskoak Londonen bizi diren gales-tarrek eratzen dituzte, Euskal Herrikoak Abadik.

–Euskal Herriko jaiak idatziz egin ziren, eta halakoxeak ziren Galesko “almanaketako eisteddfod”ak, urtean-urtean agerituriko poemen bilduma argitaratzen zen Galesen idazleen izenak omenduz.

Baina, badirudi laugarren ereduak izan zuela zerikusirik Abadiaren asmakizunean.

–Herri desberdinetan ospatzen ziren.

–Taldea jakin baten ardurapean egin ziren, normalki Londoneko taldeen izenean.

–Lehiaketaren berri emateko iragarkiak agertu zituzten.

–Sariak ere sinbolikoak ziren, eta gehienetan medaila baten antzeko izan ohi ziren.

–Irabazleen izen eta konposaketak iragartzen zituzten.

–Noiz edo noiz gairen bat eman zen poeten lana bideratu eta zuzentzeko.

Prys Morganez idazten duenez:

“Corwn eta Balako inpostu biltzailea zen Thomas Jones eta beste zenbaiten lana izan zen. Hauek sortu zuten tradizioa eta eraiki zuten eredia, zeren orduntxe eratu zituzten tabernak eta ostatuak jendea biltzeko moduan; lehiaketaren berri emanez iragarkiak inprimatu zituzten; liburu galesak nonahi agertu zituzten; poesia, prosa eta musikarako sari garrantzizkoak jarri ziren: ongi moldaturiko medailak; erabakiak eta irabazleen lanak argitartu zituzten. Eraketaren garaipena izan zen; eta baldintza modernoetara egoturiko molde zaharren gaur-

koratzea. Idazleek eta musikagileek publiko zabala nahi zuten. Orduntxe sortu ziren giroaren eratzailak” (Morgan, 1988, 63).

Eisteddfod guztiek, baina, helburu nagusia zuten: Galesko herrikoen artean tradizio galestarrekiko –nahiz eta zenbait faltsuak izan– interesa sortu eta zabaldu. Honetan ere Lore Jokoen aurrerabideak izan ziren Galesko eisteddfod jaiak.

BIBLIOGRAFIA

HOBBSAWM, E.J.: “Introducció” in *L’invent de la tradició*. Eumo. Vic. 1988. 13-25.

MORGAN, P.: “From a Death to a view: La caça del passat gallès en el període romàntic” in HOBBSAWM, E.J.: *L’invent de la tradició*. Eumo. Vic, 1988.